

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

#### **Etxeko eta merkataritzako hondakinen kudeaketa arautzen duen ordenantza sortzeko espedientearen behin betiko onarpena**

Espediente horri alegaziorik jarri ez zaionez, argitaratu egiten da, indarrean jar dadin.

#### **Etxeko eta merkataritzako hondakinen kudeaketa arautzen duen ordenantza**

##### Aurkibidea

1. titulua. Xedapen orokorrak
1. artikulua. Xedea
2. artikulua. Eragin-eremua
3. artikulua. Definizioak
4. artikulua. Etxeko eta merkataritzako hondakintzat hartzen diren hondakinak
5. artikulua. Zerbitzua ematea
6. artikulua. Kudeaketaren hierarkia
7. artikulua. Zerga araubidea
8. artikulua. Hondakinak erre, sutara bota eta errausteko debekua
2. titulua. Hondakinak biltzea
1. kapitulua. Arau orokorrak
9. artikulua. Hondakinak biltzeko sistema
10. artikulua. Hondakinak biltzeko agente baimendunak
11. artikulua. Hondakinen jabetza
12. artikulua. Hondakinak biltzeko eginbeharra
13. artikulua. Hondakinak biltzeko maiztasuna eta ordutegiak
2. kapitulua. Espaloiko edukiontzietan biltzeko arauak
14. artikulua. Biltzeko hondakinak
15. artikulua. Hondakinen bilketa
16. artikulua. Hondakinak biltzeko tokiak udalerrriaren barruan
17. artikulua. Edukiontzien mantentze lana
18. artikulua. Hondakin biologikoak biltzeko edukiontzia
3. titulua. Hondakinen gaikako bilketa
19. artikulua. Ontziak
20. artikulua. Beira

21. artikulua. Kartoia eta papera
4. titulua. Autokonpostajea egiteko arauak
22. artikulua. Autokonpostajea egiteko hondakinak
23. artikulua. Autokonpostajea egiteko ontziak
24. artikulua. Konpostaren erabilera
5. titulua. Auzo konposta egiteko arauak
25. artikulua. Egokitutako tokiak
26. artikulua. Prestakuntza
27. artikulua. Konpostaje eremuen ezaugarriak
28. artikulua. Konpostaje eremuen kokapena
29. artikulua. Mantentzea
30. artikulua. Instalazioak eta materialak
31. artikulua. Konposta egiteko hondakinak
32. artikulua. Hondakinen bilketa
33. artikulua. Konpostaje arduraduna (master composter)
34. artikulua. Prozedura
35. artikulua. Kalitate kontrola
36. artikulua. Jarraipena
37. artikulua. Zerga onurak
38. artikulua. Hondakinen bilketa alde batera uztea
6. titulua. Beste hondakin batzuk biltzeko arauak
39. artikulua. Hildako animaliak
40. artikulua. Tamaina handiko hondakinak
41. artikulua. Utzitako ibilgailuak
42. artikulua. Inausketak eta antzekoak
43. artikulua. Etxeko hondakin arriskutsuak
44. artikulua. Sukaldeko olioak
45. artikulua. Pilak
46. artikulua. Ehunak, arropa eta oinetakoak (edo berrerabilgarriak)
47. artikulua. Puntu berde mugikorra
7. titulua. Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak
1. kapitulua. Arau orokorrak
48. artikulua. Sailkapena
49. artikulua. Biltzeko arau orokorrak
50. artikulua. Obrako edukiontzia bide publikoan
51. artikulua. Garraioa

- 52. artikulua. Garbiketa
- 2. kapitulua. Obra handiko hondakinak
- 53. artikulua. Araudi aplikagarria
- 54. artikulua. Aurretiazko dokumentazioa
- 55. artikulua. Hondakinak gaika bereizteko espazio nahikorik eza
- 56. artikulua. Finantza bermea
- 57. artikulua. Lizentzia behar duten obren amaierako kudeaketa txostena
- 58. artikulua. Urbanizazio proiektuen amaierako kudeaketa txostena
- 59. artikulua. Bermea itzultzeko eskaera
- 60. artikulua. Bermea itzultzeko proposamena
- 61. artikulua. Errekerimendua
- 62. artikulua. Bermea egikaritzeko proposamena
- 63. artikulua. Ebazpena
- 64. artikulua. Jarduteko prozedura, kudeaketa egiaztatu gabeko obrako hondakinak aurkituz gero.
- 65. artikulua. Jarduteko prozedura, kudeaketa egiaztatu gabeko obrako hondakinak aurkitu ezean.
- 66. artikulua. Lehen erabilerako lizentzia
- 3. kapitulua. Eraikuntza obra txikiko eta etxeko konponketetako hondakinak
- 67. artikulua. Aurretiazko dokumentazioa
- 68. artikulua. Lizentzia izapidetzea
- 69. artikulua. Fidantza
- 70. artikulua. Hondakinen xedea
- 71. artikulua. Hondakinak bereiztea
- 72. artikulua. Fidantza itzultzeko eskaera
- 73. artikulua. Fidantzaren xedea
- 4. kapitulua. Udal obrak
- 74. artikulua. Birziklatutako agregakinen erabilera
- 75. artikulua. Udal obretako hondakinen kudeaketa
- 8. titulua. Ikuskapena, kontrola eta zehapena
- 1. kapitulua. Ikuskapena eta kontrola
- 76. artikulua. Ikuskapen zerbitzua
- 77. artikulua. Ikuskapen zerbitzuen izaera
- 78. artikulua. Laguntzeko eginbeharra
- 79. artikulua. Laguntza teknikoak
- 2. kapitulua. Arau hausteak eta zehapenak
- 80. artikulua. Subjektu erantzuleak

- 81. artikulua. Arau hauste eta zehapenen preskripzioa
- 82. artikulua. Berrito jartzeko eginbeharra
- 83. artikulua. Zehapen prozedura
- 84. artikulua. Administrazioako arau hausteak
- 85. artikulua. Arau hauste arinak
- 86. artikulua. Arau hauste astunak
- 87. artikulua. Arau hauste oso astunak
- 88. artikulua. Zehapenak
- 89. artikulua. Zehapenak mailakatzeko irizpideak
- 90. artikulua. Behin-behineko neurriak

## 1. titulua. Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Xedea

Honako ordenantza honen xedea da etxeko eta merkataritzako hondakinen kudeaketa arautzea Arratzua-Ubarrundiako udalerraren barruan, lege hauek udalari ematen dizkioten eskumenen esparruan: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko toki erakundeei buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki araubidearen oinarriak ezartzen dituen; eta 22/2011 Legea, Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.

### 2. artikulua. Eragin eremua

Honako ordenantza honek dakartzan aginduak aplikagarriak izango dira Arratzua-Ubarrundiako udalerraren barruko lurralde osoan, eta Arratzua-Ubarrundian bizi edo egoitza duen pertsona fisiko nahiz juridiko orok bete beharko dituzte, bai eta udalerrira datozen bisitari eta ibiltariak ere, eragiten dieten kontuetan.

### 3. artikulua. Definizioak

a) Etxeko hondakinak: Etxeko jardueren ondorioz etxeetan sortzen diren hondakinak. Halaber, etxeko hondakintzat jotzen dira zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren eta aurretik aipatutako hondakinen antzekoak direnak.

Era berean, kategoria horren barrukoak dira etxetresna elektriko eta elektroniko, arropa, pila, metagailu, altzari eta tresnak direla eta etxeetan sortzen diren hondakinak, baita etxeko eraikuntza eta konponketa obra txikietatik sortutako hondakinak eta zaborrak ere.

Etxeko hondakintzat joko dira herri bideak, berdeguneak eta atsedenlekuak garbitzeko lanetatik sortutakoak, hildako abereak eta bertan behera utzitako ibilgailuak.

b) Merkataritzako hondakinak. Txikizkako eta handizkako merkataritzaren berezko jarduerak sortutako hondakinak, hala nola sukaldaritza zerbitzuek, tabernek eta bulegoek sortutakoak, bai eta zerbitzuen sektoreko gainerako jarduerak sortutakoak ere.

c) Gaikako bilketa Hondakinak gaika bereizten dituen bilketa, hondakin motaren eta hondakinen izaeraren arabera, berariazko tratamendua ahalbidetzeko.

d) Biohondakinak edo hondakin biologikoak. Lorategi eta parkeetako hondakin biodegradagarriak, elikagaien hondakinak eta etxe, jatetxe, talde handientzako otordu zerbitzu eta txikizkako salmantan diharduten establezimenduetako sukaldeko hondakinak, bai eta elikagaiak prozesatzeko instalazioetan sortzen diren antzeko hondakinak ere.

e) Papera eta kartoia. Hondakin mota hauetakoak ditugu egunkariak, aldizkariak, liburuxkak, kartoia, idatzitako orriak, paper-kartoizko ontziak, kartoizko arrautzontziak, paperezko poltsak,

kartoizko kutxak, liburu eta koadernoak, karpetak eta antzeko hondakinak. Hauek ez dira mota honetako hondakinak: zelofan papera, aluminiozko papera, tetra brick direlakoak, argazkiak, erradiografiak, tisu papera edo pixoihalak.

f) Beira. Hondakin mota honetakoak dira ura, ardoa, likoreak, garagardoak eta freskagarriak sartzeko beirazko botilak, kontserba potoak, jogurt ontziak, lurrinak eta beste produktu kimiko batzuk sartzeko flaskoak eta antzekoak. Honako hauek ez dira mota honetako hondakintzat hartzen: bonbillak, leihoetako kristalak, ispiluak, betaurrekoak, pitxerrak, edalontziak, platerak, ibilgailuetako kristalak, portzelanazko eta zeramikazko gauzakiak eta antzekoak.

g) Ontzi arinak. Puntu berdea daramaten ontzi guztiak dira mota horretakoak: plastikozko ontziak, metalezkoak, tetra brick direlakoak, plastikozko poltsak, metalezko edo plastikozko tapoiak edo xaflak, egurrezko kutxak, hutsik dauden aerosolak (desodoranteak, lakak...). Paper-kartoizko eta beirazko ontziak ez dira mota honetakoak, halakoak beste era batean bereizten baitira.

h) Tamaina handiko hondakinak. Tamaina handikoak direlako, ohiko bilketaren bidez bereiz ezin daitezkeen hondakinak, besteak beste, etxetresnak, altzariak eta metalezko edo egurrezko xafla handiak. Sukaldeko olioak. Frijitzeko olioak eta kontserba ontzietako olioak. Ez dira mota honetako hondakintzat hartzen motorreko olioak.

i) Arropa, ehunak eta oinetakoak. Etxeko ehungintza produktuak, oinetakoak, arropa eta poltsak.

j) Higiene hondakinak. Mota honetakoak ditugu pixoihalak, konpresak eta higiene pertsonalari lotutako beste hondakin batzuk.

k) Pilak. Mota honetako hondakinak dira: botoi pilak, pila zilindrikoak eta pila zapalak.

l) Botikak eta botiken ontziak. Hauek hartu behar dira mota honetako hondakintzat: botiken azalak, pilulak, kapsulak, anpuluak, supositorioak eta botiken eite guztiak, baita botikak gordetzeko ontziak ere (plastikozko potoak, kartoizko edo plastikozko kutxak, blisterrak eta abar.).

m) Etxeko hondakin arriskutsuak. Etxean sortu eta nolabaiteko arriskua eragin dezaketen hondakinak.

n) Etxeko eraikuntza eta konponketa hondakinak. Obra txikietan sortzen diren hondakinak, hala nola adreiluak, hormigoia, losak eta azulejuak, zura, plastikoak, igeltsu ijertuzko plakak...

o) Gainerako hondakinak edo errefusa. Mota honetakoak ditugu gaikako bilketaz bereizten ez diren hondakin guztiak.

p) Hondakinen kudeatzailea (pertsona edo erakundea): Hondakinak sortu ez arren, hondakinak kudeatzeko eragiketen bat egiten duen pertsona edo erakunde publikoa zein pribatua, baimenez edo jakinarazpenez erregistratua.

q) Hondakinen kudeaketa: hondakinen bilketa, garraioa eta tratamendua.

r) Bilketa: hondakinak biltzea, sailkatzea eta behin-behinean biltegitratzea, hondakinak tratatzeko instalazio batera eraman artean.

s) Tratamendua: hondakinak baliarazteko edo deuseztatzeko eragiketak, baliarazpenaren edo deuseztapenaren aurreko prestaketa ere aintzat hartuta.

t) Baliarazpena: dena delako hondakinak beste material batzuk ordeztzeko helburuz egiten den zeinahi eragiketa (bestela, aipatutako materialak erabiliko ziren eginkizun zehatz bat betetzeko), edo hondakina bera prestatzea eginkizun jakin bat betetzeko instalazioaren barruan edo, oro har, ekonomian. Uztailaren 28ko 22/2011 Legeak, Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoak, hondakinak baliarazteko eragiketen zerrenda (ez da zehatzegia) jasotzen du II. eranskinean.

u) Deuseztapena: baliarazpenaz kanpoko edozein eragiketa, substantziak edo energia baliatzea alboko ondorio gisa dakarten eragiketak ere aintzat hartuta. Uztailaren 28ko 22/2011 Legeak, Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoak, hondakinak deuseztatzeke eragiketen zerrenda (ez da zehatzegia) jasotzen du I. eranskinean.

v) GEEH: gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak.

w) Edukiontzia flotatzaileak: hurrenez hurren, hondakin bat baino gehiago biltzeko erabiltzen diren edukiontzia (ez aldi batera, ordea).

x) Obra handia: obra handizat jotzen dira gauzatu ahal izateko proiektu edo txosten teknikoak prestatzea eta onartzea beharrezkoa dutenak, indarrean dagoen legeriari jarraituz.

y) Obra txikia: obren erraztasuna eta munta apala direla eta, txikitat jotzen dira gauzatu ahal izateko proiektu teknikorik beharrezkoa ez dutenak.

#### **4. artikulua. Etxeko eta merkataritzako hondakintzat hartzen diren hondakinak**

Honako hauek ez dira etxeko edo merkataritzako hondakintzat hartuko:

a) Industriaren jarduerari atxikitako fabrikazio, eraldaketa, erabilera, kontsumo, garbiketa edo mantentzearen zioz sortutako hondakinak.

b) Eraikuntza eta konponketa lanen ziozko hondakinak, hala nola hondeaketa lanetako lurrak, betiere etxeak eraikitzeke edo konpontzeke obra txikien ziozkoak ez badira.

c) Harategi, arrandegi eta antzeko establezimenduetan sortzen eta gizakiek kontsumitzekeak ez diren animalia azpiproduktuak. Halakoak, udalaren baimen berezia izan ezean, ezin izango dira etxeko hondakinekin batera kudeatu eta, hortaz, esandako jardueren titularrek mota horretako hondakinen bilketa kontratatu beharko dute horretarako baimena daukan enpresaren batekin. Aurreko paragrafoan aipatu den baimen berezia eskuratzeko, establezimenduaren titularrak inguruabar hauetako bat egiaztatu beharko du:

– Gutxienez, animalia azpiproduktuak biltzen edo kudeatzen dituen pertsona edo erakunde batek ezetza eman diola hondakin horiez arduratzeari (jakina denez, dena delako enpresak baimena izan behar du sortzen den azpiproduktua kudeatzeko, dela haragia, dela okela).

– Azpiproduktuak kudeatzeko baimena duen enpresaren bidezko kudeaketa ekonomikoa ezinezkoa dela. Kasu horretan, eskaintza ekonomikoa edo aurrekontua aurkeztu behar da.

#### **5. artikulua. Zerbitzua ematea**

1. Udalak etxeko eta merkataritzako hondakinak kudeatzeko zerbitzua emango du, indarreko legeriak ezartzen dituen zerbitzu publikoak kudeatzeko zeinahi era baliatuz, ordenantza honetan araututako baldintzei jarraituz eta unean-unean egokientzat hartzen dituen sistema teknikoaren eta antolakuntzaren arabera.

2. Udalak zerbitzu jakin batzuk emateko eskumena laga ahalko die kudeaketa sistema integratu eta baimendunei; horretarako hitzarmenak sinatuko ditu aipatutakoekin.

#### **6. artikulua. Kudeaketaren hierarkia**

1. Udalak hondakinak biltzeko eta tratatzeko zerbitzuaren antolaera eta garapena bideratuko ditu lehentasun hauen hurrenkeran:

a) Prebenitzea.

b) Berrerabiltzeko prestatzea.

c) Birziklatzea.

d) Beste mota bateko baliarazpena, hondakinen baliarazpen energetikoa ere aintzat hartuta.

e) Deuseztatzea.

2. Hala eta guztiz ere, hondakin fluxu jakin batzuei dagokienez, ingurumen emaitzarik onena lortzeko xedez, hierarkia hori alde batera utzi beharko balitz, lehentasunen beste hurrenkera bat baliatu ahalko da, baldi eta hondakin horien sorrera eta kudeaketaren eraginaren bizitza zikloari buruzko ikuspegiak horrela iradokiko balu.

#### **7. artikulua. Zerga araubidea**

1. Urtero-urtero, udalak zerga ordenantzaren ezarriko dituen zerbitzuak emateagatik tasak, legez araututa dagoen moduan, eta herritarrek -edo, hala badagokio, erabiltzaileek-, tasak ordaindu beharko dituzte.

2. Tasak ezartzerakoan, hobariak baliatu ahal izango dira hondakin gutxi sortzen dituztenentzat, jatorrian gaikako bereizketa zuzena egiten dutenentzat, konposta egiten dutenentzat edo zerga ordenantzak arautzen dituen kasuetan.

#### **8. artikulua. Hondakinak erre, sutara bota eta errausteko debekua**

1. Guztiz debekatuta dago hondakinak erretzea eremu publikoetan edo pribatuetan.

2. Kultura ildoko ekitaldietan, udalaren baimena beharko da su egiteko. Halakoetan, udalak ezarritako arauak jarraituz prestatu beharko dira sutegiak. Ezin izango da surik egin inola ere udalerrri honetako naturagune babestuen barruan.

3. Uztondoak, inausketa hondarrak, lastoa eta nekazaritzako ustiatuekietan erabiltzen den nekazaritza edo basogintza jardueretatik sortutako beste edozein material natural eta ez-arriskutsua erre baino lehen, udalari jakinarazi beharko zaio, udalak kontrolatu ahal izateko erre nahi diren gaien izaera, mendiei buruzko legeriak edo beste araudi batzuek ezarritako baimenak eskatzeko beharra gorabehera.

### **2. titulua. Hondakinak biltzea**

#### **1. kapitulua. Arau orokorrak**

#### **9. artikulua. Hondakinak biltzeko sistema**

1. Hondakinak biltzeko, udalak honako sistema hau erabiliko du:

Hondakinak espaloian jarritako edukiontzien bidez bilduko dira, hain zuzen ere, hondakin hauek: papera eta kartoia, ontziak, hondakin organikoak, arropa eta errefusa.

Hondakin organikoak eta errefusa biltzeko edukiontzietan, erabiltzaileek identifikazio sistema erabili beharko dute.

Era berean, landa eremuko bi puntu edo eremu garbi daude, Durana eta Zurbano herrietan.

Tamaina handiko hondakinak biltzeko, eskaera egin beharko da aurretiaz udaletxean.

Hildako animaliak biltzeko, interesdunak telefono zenbaki batera deitu beharko du zerbitzua eskatzeko.

2. Hondakinak biltzeko sistema aldatu ahal izango du udalak, lortzen diren emaitza tekniko eta ekonomikoak ikusita.

3. Aipatutako sistemetako edozein erabiltzerakoan, baliteke tasa jakin bat ordaindu behar izatea hondakinak sortzeagatik, eta tasa horretan oinarrituta, erabiltzaileak zerbitzuaren kostua ordaindu beharko luke, norberak sortzen dituen hondakinena arabera.

#### **10. artikulua. Hondakinak biltzeko agente baimendunak**

1. Udalak baimendutako zerbitzuak edo zerbitzuek besterik ez dute izango etxeko hondakinak biltzeko eskumena, ekoizlearen erantzukizun handituko sistema kolektibo baten (EEHSK, lehen KSI, kudeaketa sistema integratua) bidez biltzen diren hondakinena izan ezik. Hori dela

eta, guztiz debekatuta dago beste pertsona fisiko edo juridiko batek hondakinak biltzeko eginkizunik gauzatzea.

2 Merkataritzako hondakin ez-arriskutsuen eta industrietan sortzen diren etxeko hondakinen kudeaketa halaberrez txertatu behar dira sistema publikoan, honako ordenantza honetan araututako baldintzetan edo etorkizunean gara daitekeen araudian ezarritakoetan. Hala, jatorrian, hondakin mota horiek sortzen edo edukitzen dituzten enpresek ezin izango dute uztailaren 28ko Legeak, Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoak, 17. artikulua 3. Atalean jasotako aukera baliatu.

#### **11. artikulua. Hondakinen jabetza**

1. Hondakinak utzi beharreko lekuetan utzita, bilketa zerbitzuek beste leku batera eraman arte, hondakinak udalaren jabetzakoak izango dira.

2. Bilketaren ondorioetarako, aurreko atalean adierazitako udalaren jabetza eraginkorra izango da hondakinak bide publikoan jarritako edukiontzietan sartzen diren unetik bertatik.

#### **12. artikulua. Hondakinak biltzeko eginbeharra**

1. Udalak etxeetan eta zerbitzu establezimenduetan sortzen diren etxeko hondakinak bilduko ditu.

2. Hala eta guztiz ere, udalak etxeko hondakin arriskutsuak edo, hondakinen ezaugarriak direla eta, kudeaketa zailekoak sortzen dituzten pertsonak edo erakundeak behartu ahalko ditu neurriak har ditzatela, hondakinen arriskua apal dezaten edo era eta leku egokietan bil ditzaten.

3. Industrietan sortzen diren merkataritzako hondakinak eta etxeko hondakinak kudeatu ahal izango ditu udalak, udalerrri osoan edo haren zati batean. Udalak zerbitzu hori eskaintzen badu, erabiltzaileek derrigorrez erabili beharko dute, eta zerbitzuari doazkion kostuak bere gain hartu beharko dituzte.

Nolanahi ere, udalak zerbitzua emateari uko ahalko dio, kokalekuaren zioz, hondakinen ezaugarrien zioz edo sortutako hondakinen tamainaren edo kantitatearen zioz.

Udalak eskaintzen duen zerbitzura egokitzeko arazoak balitu enpresaren batek, enpresak baimena eman lezake sortutako hondakinak kudeatzaile baimendu batek kudeatzeko.

Udalaren bilketa zerbitzua ematen ez denetan, establezimenduek enpresa kudeatzaile baimendu batekin sinatutako kontratua izan beharko dute establezimenduek, eta urtebeteko epean hondakinak biltzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa gorde beharko dute; era berean, agiri horiek guztiak udalaren esku jarri beharko dituzte, udalak eskatuz gero.

Udalerrri osoan edo zati baten eskaini ahalko du bilketa, baina zerbitzua borondatezkoa izango da hala eskatzen duten enpresentzat.

#### **13. artikulua. Hondakinak biltzeko maiztasuna eta ordutegiak**

1. Udalak hondakinak biltzeko maiztasuna eta ordutegia ezarriko du, udalerrriko beharrian eta interesen arabera, eta webgunean argitaratuko ditu.

2. Interes publikoaren arrazoiak direla eta, udalak egokitzen jotzen dituen aldaketak egin ahalko ditu, baina nahikoa aurrerapenez zabaldu beharko ditu zerbitzua emateko ordutegi edo maiztasunari lotutako aldaketen berri.

### **2. kapitulua. Espaloiko edukiontzietan biltzeko arauak**

#### **14. artikulua. Biltzeko hondakinak**

1. Udalak edukiontzia jarriko ditu honako hondakin hauen gaikako bilketa egiteko, eta biltzeko hondakinen motak handitu edo txikitu ahal izango ditu, sistemaren eragingarritasunari erreparaturik.



- a) Biohondakinak edo hondakin biologikoak.
  - b) Gainerako hondakinak edo errefusa.
  - c) Papera-kartoia.
  - d) Ontzi arinak.
  - e) Beira.
  - f) Ehunak...
2. Erabiltzailea identifikatzen duen irekitze gailuz hornitu ahalko dira edukiontzia.
  3. Era berean, edukiontzia sistema egokiaz hornitu ahalko dira sorkuntzaren arabera ordainketa bideratzeko.
  4. Udalak berak ezarriko ditu edukiontzi motak, eremu bakoitzeko unitateen kopurua eta horien kokalekua.

#### **15. artikulua. Hondakinen bilketa**

1. Udalak ezarritako lekuetan jartzen diren edukiontzietara bildu beharko dituzte hondakinak erabiltzaileek.
2. Jatorrian, nahitaezkoa da hondakinak gaiaren arabera bereiztea: organikoak (biohondakinak), errefusa, papera-kartoia, ontzi arinak, beira eta ehunak. Horren haritik, debekatuta dago hondakinik sartzea dena delako motari ez dagokion edukiontzi batean.
3. Erabiltzaileek isurketarik ez gertatzeko eran utzi beharko dituzte hondakinak edukiontzietan. Hondakinak behar bezala bildu ez direlako isurketarik gertatuko balitz, isurketaren eragilea eragindako zikinkeria erantzulea izango da.
4. Ezin da inola ere hondakinik utzi pakete, kutxa eta antzekoetan.
5. Debekatuta dago hondakinak zakarrontzietan uztea. Hala berean, ezin izango dira bide publikoan jarritako edukiontzietan sartu, tamainagatik, edukiontzietako sarrera oztopatzen bada.
6. Ezin da edukiontzietan sartu hondakin likidorik duen hondakinik edo likidotu zein urtu ahal denik.

#### **16. artikulua. Hondakinak biltzeko tokiak udalerraren barruan**

1. Bilketa zerbitzuek hondakinak jaso ahal ditzaten, udalak ezarritako lekuetan utziko hondakinak erabiltzaileek. Ezin da hondakinik utzi edukiontzitik kanpo.
2. Agiri honetan aipatu ohi diren hondakinez bestekoak uzteko eta biltzeko lekuak ezarri ahalko ditu behin betikotasunez edo behin-betikotasunez.
3. Bide publikoan obrak egingo direlako, edukiontzirik kendu beharko balitz, obraren sustatzaileak horren ardura hartu beharko du, edukiontzia mugitzeko eskaera egin beharko dio udalari eta, obra amaitutakoan, edukiontzia behar bezala jarri beharko ditu.

#### **17. artikulua. Edukiontzien mantentze lana**

1. Udalak hiri espazioaren erreserba bereziak ezarriko ditu hondakinen zamalanak egiteko eta edukiontzien mantentze lana egiteko beharrezkoak diren eragiketak gauzatzeko.
2. Zerbitzu egokiek edukiontzia garbituko dituzte aldiro-aldiro, bakoitzaren mantentze lanaren arabera eta, bidenabar, higiene baldintzei eusteko. Konposta egiteko erabiltzen diren hondakinen edukiontzia garbitzeko, konpostaren kalitatea arriskuan jartzen ez duten produktuak erabili beharko dira.
3. Erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek, higiene eta segurtasun baldintza egokietan erabiltzeko betebeharra dute; ildo horretan, haien erruz, arduragabekiaz edo zuhurtziagabe-

tasunez edukiontzien pairatzen dituzten kalteen ardura hartu beharko dute. Betebehar berdina izango dute burdinaga babesle, euskarri, barrote eta abarrei eta bilketa eremuetan ezarritako markei dagokienez, halakorik balego.

4. Debehatuta dago edukiontzia mugitu eta beste leku batera eramatea, bai eta edukiontzia manipulatzeko ere, batik bat, egoera arriskutsuak sortu baditzakete edo zerbitzuko langileen lana eragozten bada.

#### **18. artikulua. Hondakin biologikoak biltzeko edukiontzia**

1. Udalak hondakin biologikoak edo biohondakinak biltzeko edukiontzi bereziak jarriko ditu udalerrira osoan edo haren zati batean.

2. Edukiontzien irekitzeko sistema batez hornituko dira, ongi informatutako pertsonak erabiltzea izan dezaten; izan ere, erabat funtsezkoa da edukiontzi mota horietan bakar-bakarrik hondakin organikoak bil daitezen.

3. Biohondakinen edukiontzietan, gai hauek sartu ahal izango dira: landare hondakinak (fruta, ortuari eta barazkiak), haragi eta arrain hondakinak (kuzinatutakoak edo gordinak), fruitu lehorrak, zatitutako ogia, azalak eta maskorrak, ebakitako ileak eta maskoten ileak, kafe eta infusioen hondarrak eta iragazkiak, kortxoak eta zotzak, zerrauts naturala eta sukaldeko paper zikina.

### **3. titulua. Hondakinen gaikako bilketa**

#### **19. artikulua. Ontziak**

1. Ontziak plastikozko poltsa irekietan sartu behar dira udalerrira herri guztietan jarritako edukiontzi guztietan.

2. Edukiontzi horietan, plastikozko ontziak, metalezko ontziak eta brick direlakoak bakar-bakarrik sartu behar dira, bai eta erabilera bakarreko plastikozko poltsak.

3. Edukiontzi mota horietan, debehatuta dago honelako hondakinak sartzea:

- Jostailuak
- Plastikozko loreontziak
- Papera eta kartoia
- Beira
- Txanpon zorroak eta billete zorroak
- Bideoak edo CDak
- Karpeta, paper zorro eta agiriak eramateko antzeko tresnak
- Maletak
- Pizgailuak
- Estilografika edo bolalumentzako ordezkioak
- Xiringak, plasma ontziak eta, horien helburua dela eta, osasun produktutzat har daitezkeen guztiak
- Odol, eginkari edo gernu laginak hartzeko flaskoak edo zorroak eta analisiak egiteko erabiltzen diren beste ontzi batzuk

– Antzeko hondakinak

#### **20. artikulua. Beira**

1. Beirak poltsarik gabe sartuko dira udalerrira herri guztietan jarritako iglu berdeetan.

2. Iglu berdean, poto, flasko, botila eta botilatxoan hondakinak sartu behar dira, tapa, tapoi edo kortxorik gabe.

3. Iglu berdeetan, debekatuta dago honelako hondakinak sartzea:

- edalontziak
- bonbillak
- zeramika eta baxera
- ispiluak
- antzeko hondakinak

#### **21. artikulua. Kartoia eta papera**

1. Papera eta kartoia udalerriko herri guztietan jarritako edukiontzi urdinetan sartu beharko dira.

2. Paper-kartoiek garbi egon behar dute eta ezin dira plastikozko poltsetan sartu.

3. Edukiontzi urdinean, honelako hondakinak sartu behar dira: kartoizko kutxak, aldizkariak, egunkariak, paperezko poltsak, zerealen kutxak, oinetakoen kutxak, kartoi meheak edo paperez fabrikatutako antzeko beste edozein hondakin.

4. Edukiontzi horretan, debekatuta dago papera edo kartoia ez den beste zeinahi hondakin sartzea.

### **4. titulua. Autokonpostajea egiteko arauak**

#### **22. artikulua. Autokonpostajea egiteko hondakinak**

1. Autokonpostajea aukerakoa da eta, beraz, erabiltzaileek erabaki dezakete zer hondakin konpostatzen duten (berdea, haragia eta arraina, gordina edo kuzinatutakoa) edo, bestela, hondakin jakin batzuk konpostatzen dituen.

2. Autokonpostajea egiteko, biohondakin hauek erabil daitezke:

- Fruta, barazki eta ortuarien hondakinak.
- Janari eta ogi hondarrak.
- Itsaski, arrautza eta fruitu lehorren oskolak.
- Sukaldeko paper erabilia, janari hondarrak dituen, baina produktu kimiko eta detergen-terik gabe.

– Kafe eta infusio hondarrak.

– Hosto lehorrak, lorategiko landareen hondarrak eta inausketa hondakin birrinduak.

– Zerrautsa eta tratatu gabeko egurrezko txirbilak.

– Lastoa eta soropila.

#### **23. artikulua. Autokonpostajea egiteko ontziak**

1. Udalak autokonpostajea egiteko ekipoak emango dizkie aldiro-aldiro egiten prestakuntza saioetan parte hartzen duten herritarrei.

2. Dena dela, erabiltzaileek udalari konpostatutako hondakinen kantitateei buruzko informazioa emateko konpromisoa hartu behar dute.

3. Udalak eskubidea izango du erabiltzaileen esku jarritako autokonpostaje ekipoak kentzeko, baldin eta erabiltzaileek parte hartzeko arauak urratzen badituzte.

**24. artikulua. Konpostaren erabilera**

1 Konposta ekoizten duen pertsonak bere lurren ongarri organiko gisa erabili beharko du.

2 Hala ere, pertsona edo erakunde ekoizleak bere beharrianak asetzeko baino konpost gehiago ekoizten badu edo egindako konposta egokia ez bada, udalari jakinarazi beharko dio, gertaerari irtenbiderik onena ematearren.

**5. titulua. Auzo konposta egiteko arauak****25. artikulua. Egokitutako tokiak**

1. Udalak auzo konposta egiteko tokiak egokitu ahalko ditu jabetza publikoko lurretan. Toki horiek bi motatakoak izan ahalko dira:

— Konpostatze ontziak dituzten tokiak. Beharrianei erantzuteko, ekipo bakarra edo ekipo batzuk jarri ahalko dira, bai eta egituratzailea eta tresnak gordetzeko altzariak ere.

— Konpostaje etxolak. Konposta etxola barruan egingo da eta, bertan, egituratzailea eta tresnak gordeko dira.

2. Interesdunek auzo konposta egiteko ekimenean parte hartzeko eskatu ahalko diote udalari. Udalak konpostatzeko tokia esleituko dio pertsona edo erakunde eskatzaileari, betiere horretarako aukera baldin badago.

Pertsonak izena eman ahala, udalak konpostatzeko toki gehiago egokitu ahal izango ditu edo, bestela, lehendik daudenak handitu.

3. Bestalde, konposta egiteko tokiak egokitu ahalko dira lursail pribatuetan, auzo jakin bati zerbitzua eskaintzeko. Horretarako eskaera egin beharko da udalean eta, eskaerarekin batera, lursailaren titularrek hartutako erabakia aurkeztu beharko da.

**26. artikulua. Prestakuntza**

Auzo konposta egiten parte hartzera, beharrezko prestakuntza jaso beharko dute erabiltzaileek, udalak antolatzen dituen ikastaroen bidez, erabiltzaileak konposta egiteko behar diren ezaupideak badituela egiaztatu ezik.

**27. artikulua. Konpostaje eremuen ezaugarriak**

1. Konpostatzeko egokitu nahi diren eremuek alde hauek izan beharko dituzte:

— Biltegia eta deskonposizio aldea.

— Umotze aldea.

— Egituratzailea gordetzeko aldea.

— Tresnak gordetzeko aldea.

2. Konpostatzeko eremuek itxitura izan beharko dute eremua zedarriztatzeko eta, gainera, konposta egiteko ontziek itxita egon behar dute, baimenik gabeko pertsonak erabil ez ditzaten.

3. Etxolen esparruek ere giltzapetuta egon beharko dute.

**28. artikulua. Konpostaje eremuen kokapena**

Konpostaje eremuek berdeguneetan kokatu beharko dute, betiere naturagune babestuen barruan ez bada edo 100 urteko itzulera-denbora duten eta urpetu daitezkeen esparruetan ez badaude. Era berean, agintaritzak eskumendunak ezarritako babes perimetroa gorde beharko dute hornitzeko ur bilketako zundaketak aintzat hartuta.

**29. artikulua. Mantentzea**

1. Mantentzeari doazkion lanak dira: konpostaje eremuen mantentze lanak, konponketak eta garbiketa.

2. Erabiltzaileek era egokian erabili behar dituzte instalazioak eta materialak, horien guztien egoera arriskuan jartzen duten portaerarik izan gabe.

3. Lursail publikoetan ezarritako konpostaje eremuetan, mantentze lanak egiteko ardura honela banatuko da:

- Mantentze lana eta konponketa udalari dagozkie.
- Garbiketa erabiltzaileei dagokie.

4. Lursail pribatuetan ezarritako konpostaje eremuetan, esandako zeregin guztiak erabiltzaileen auzo konpostari egokituko zaizkie.

**30. artikulua. Instalazioak eta materialak**

1. Udalak lursail publikoetan ezartzen diren konpostaje eremuei buruzko proiektuak prestatu eta gauzatu dituzte, ekipoak eta azpiegiturak eraikiko dituzte eta konposta egiteko behar diren materialak emango dituzte.

2. Parke eta lorategi publikoetako inausketa hondakinak egituratzaile gisa baliatuko dira. Udalak material hori banatuko du konpostaje eremu publikoetan.

3. Eremu pribatuetan, aldiz, zehaztu beharko da udalari zein zati dagokion eta erabiltzaileen esku zein zati geratzen den.

**31. artikulua. Konposta egiteko hondakinak**

Auzoko konpost ontzian, hondakin hauek bildu ahalko dira:

- Ortuari eta fruituen hondakin gordinak
- Janari eta ogi hondarrak
- Haragi eta arrain hondarrak
- Itsaski, arrautza eta fruitu lehorren oskolak
- Sukaldeko papera eta paperezko zapiak, janariz zikinduta egon arren
- Kafe eta infusio hondarrak
- Kortxoak eta zotzak
- Ileen eta maskoten ileen hondarrak

**32. artikulua. Hondakinen bilketa**

1. Zeharo debekatuta dago aurreko artikuluan aipatu ez den hondakinik uztea konpostaje eremuetan.

2. Onartutako hondakinak poltsarik gabe (edo poltsa konpostagarria erabiliz) utzi behar dira konpost ontzietan edo etxolen barruko deskonposizio guneetan, prestakuntza ikastaroetan adierazitako jarraibideei jarraituz. Jarraibide horiek, hala dagokionean, udalak argitaratzen duen gidaliburuan jasoko dira.

3. Hondakinak zeinahi ordutan utzi ahal dira.

**33. artikulua. Konpostaje arduraduna**

1. Konpostaje arduraduna konpostatzearen ardura daukan pertsona da. Udalak berak kontratatutako pertsona edo erabiltzailearen bat izan daiteke arduradun.

2. Nolanahi ere den, udalak prestakuntza ikastaro, gidaliburu eta abarren bidez ezarritako jarraibideen arabera kudeatu beharko du konpostatzea.

3. Arduradunaren zereginak hauek izango dira:

- Konposta aldiro-aldiro aireztatzea eta osagaiak nahastea.
- Arazorik antzemanaz gero, udalari jakinaraztea.
- Udalari egituratzailea eskatzea.
- Udalaren eta erabiltzaileen arteko solaskidea izatea.
- Konpost ontziak edo etxoletako azpiegiturak ixtea materiala umotzen dagoen bitartean.
- Laginak hartu eta analisiak egiteko eskatzea.
- Ateratako konpost kantitateen eta analisisien emaitzen berri udalari jakinaraztea.
- Konpost ontziak edo konposta gordetzen deneko etxola barruko azpiegiturak irekitzea, banatzeko helburuz, udalak gutxieneko baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren.
- Konposta jasotzeko eskari nahikorik ez dagoela udalari jakinaraztea, hark irtenbiderik egokiena aurki dezan.

#### **34. artikulua. Prozedura**

1. Konpost ontzia betetzen denean, konpostaje arduradunak ekipoa edo etxola barruko azpiegitura giltzaz itxi beharko du, deskonposizioa beste ekipa edo eremu batean bideratzeko.

2. Umotze aldia amaitzen denean, konpostak ekipoan edo etxola barruko azpiegituran egon beharko du, analisiak egiteko laginak hartu arte.

3. Konpost ontzia edo etxola barruko azpiegitura bakar-bakarrik utziko da zabalik erabiltzaileek konposta hartzea izan dezaten, betiere konpostaren kalitatea egokia dela egiaztatu ondoren.

4. Konpostaren eskaria sortutako kantitatea baino txikiagoa bada, udalak erabakiko du soberakinaren irtenbidea.

#### **35. artikulua. Kalitate kontrola**

1. Ateratako konpostari kalitate kontrola egin behar zaio, zertarako erabil daitekeen zehazteko helburuz, ekainaren 8ko 506/2013 Errege Dekretua, ongarriei buruzkoa, edo hura ordeztzen duen araudia, aintzat hartuta. Konpostaje arduradunak laginak hartzeko eskaera egin eta laborategira bidali beharko ditu. Halaber, ateratzen diren emaitzen berri eman beharko dio udalari.

2. Konposta banatzeko baimena emango da udalak kalitate egokia daukala egiaztatu ondoren, eta jarraibideak emango dizkio konpostatzearen arduradunari, azkenak erabiltzaileei azal diezazkien materiala erabiltzeko argibideak.

3. Konpostaje eremu publikoetan, udalak ordainduko ditu kalitate kontrolaren ziozko gastuak.

4. Konpostaje eremu pribatuetan, berriz, erabiltzaileek ordaindu beharko dituzte kalitate kontrolaren ziozko gastuak.

#### **36. artikulua. Jarraipena**

1. Aldiro-aldiro udalak kanpainak egingo ditu konpostaje eremu publiko zein pribatuak egoera onean daudela, bai eta erabiltzaileek egoki erabiltzen dutela ere.

2. Akatsik antzemanaz gero, udalak zuzentze neurri egokiak ezarri ahal izango ditu.

3. Erabiltzailearen batek zuzentze neurriak betetzeari uko egingo balio, udalak auzo konposta egiten parte hartzeko aukera kenduko dio.

**37. artikulua. Zerga onurak**

Auzo konposta egiteko sistemari atxikitako pertsonen zerga ordenantzetan ezartzen diren onurak baliatu ahalko dituzte.

**38. artikulua. Hondakinen bilketa albo batera uztea**

1. Hondakin konpostagarriak biltzeko zerbitzua ez zaie auzo konposta egiten parte hartzen duten pertsonen emango.

2. Auzoan konposta egiteko sistemak emaitza onak ontzen dituen heinean, udalak hondakin konpostagarriak biltzeko zerbitzua osorik kendu ahal izango du.

**6. titulua. Beste hondakin batzuk biltzeko arauak****39. artikulua. Hildako animaliak**

1. Debekatuta dago zeinahi espezieetako animalien hilotzak etxeko zaborren artean sartzea, lursailetan uztea, hustubidetik botatzea, ibai, aintzira, isurbide edo estoldetatik botatzea edo jabetza publikoko lursailetan lurperatzea.

2. Honako arau hau hausteagatik zehapenak ez die kalterik egingo osasun arloko legerian arautzen diren erantzukizunei.

3. Hildako maskoten gorpuak biltzeko, interesdunek udal bulegoetara deitu beharko dute eta, bertan, bilketa egiteko zein telefono zenbakitara deitu behar duten adieraziko zaie.

4. Jabearen erantzukizunpean eta baldintza higieniko egokietan, gorpuzkiak leku baimendu-  
duetara eraman daitezke bertan errausteko edo ehorzteko.

**40. artikulua. Tamaina handiko hondakinak**

1. Tamaina handiko hondakinak ezin dira edukiontzietan sartu, bide publikoan utzi edo lursail publiko nahiz pribatuetan utzi.

2. Tresna elektriko edo elektronikoak garbigune batera eraman beharko dira. Hala eta guztiz ere, erabiltzaileak tresna elektriko edo elektroniko berria erosten duenean -bartzertzen duenaren baliokidea edo haren funtzio berdinak dituen- zaharra erosteta unean bertan emango dio banatzaileari, eta horrek aldi baterako bildu beharko du, betiere tresnak oinarrizko osagaiak baditu eta tresna horri ez dagozkion hondakinak ez baditu.

3. Tamaina handiko hondakinak (altzariak, koltxoak, etxetresnak, somier, lanpara eta antzekoak) etxetik kendu nahi dituztenek udal zerbitzuei eskatu beharko diete eta kasuan-kasuan adostuko dituzte bilketaren xehetasunak.

4. Tamaina handiko hondakinen kopurua dela eta, udal zerbitzuak biltzeko eragozpenik izango balu, bilketa hainbat egunetan egiteko eskatu ahalko du.

5. Tamaina handiko hondakinak eraikin baten edo horren zati handi baten hustuketaren ondorioz sortzen direnean, hondakinen sortzaileek kudeatu beharko dituzte.

**41. artikulua. Utzitako ibilgailuak**

1. Debekatuta dago erabiltzen ez diren ibilgailuak eskumen publikoko zaintza eta polizia dituzten bide publikoan edo erabilera orokorreko eremuetan.

2. Ibilgailu bat bertan behera utzi dela ulertuko da hilabetetik gorako epean leku berean aparkaturik dagoenean eta, ibilgailuak dituen kalteen ondorioz, berez ezin mugitu daitekeenean edo matrikula plakak falta dituenean.

3. Ez dira erabileraz kanpoko ibilgailutzat hartuko agindu judizial baten eraginez ibilgetuta daudenak, udala horren jakinaren gainean egonda. Udalak neurri egokiak hartu ahal izango ditu hiriko higienari eusteko.

4. Bertan behera utzitako ibilgailuei dagokienez, jabeek jakinaraziko zaie ibilgailua zer-nolako egoeratan dagoen, eta dagoen lekutik gehienez ere egutegiko 15 egunean kentzeko eskatuko zaie. Dena dela, arrisku, osasungarritasun edo ordena publikoari atxikitako baldintzak aintzat hartuta, ibilgailua berehalakoa kendu ahal izango da.

5. Ibilgailua kendu eta ibilgailua gordailuan utzi ondoren, udalak ibilgailuaren titularrari edo jabeari jakinaraziko dio.

6. Jakinarazpenean, titularrari eskatuko zaio adieraz dezan ibilgailua udalaren esku uzten duen (hala eginez gero, udalak ibilgailuaren jabetza eskuratuko du), edo ibilgailua baztertzeko ardurak hartuko duen. Jakinarazpen horretan, titularrari ohartaraziko zaio 15 eguneko epean erantzunik jaso ezean, ulertuko dela lehenengo aukeraren alde egiten duela. Ibilgailuaren jabea ezezaguna bada, jakinarazpena arau orokorrean jarraituz egingo da.

7. Ibilgailua gehienez ere bi hilabeteko epean gordailuan egongo balitz, epea igarotakoan, udalak ibilgailuaren xede egokia erabakiko du. Behin betiko xedapen hori arrisku, osasungarritasun eta ordena publikoari lotutako baldintzengatik kendutako ibilgailuei aplikatuko zaie.

8. Bidezkoak diren zehapenak gorabehera, ibilgailuen jabe edo edukitzaileen konturakoak izango dira ibilgailua bide publikotik kendu eta gordailura eramateko gastuak edo udalak arlo horretan egiten duen zehapenak jarraierak eragindako gastuak.

#### **42. artikulua. Inausketak eta antzekoak**

1. Lorategien jabeek eta arduradunek lorazaintzako hondakinak bildu eta kudeatu beharko dituzte nork bere baliabideak erabiliz, eta hondakin horien konpostajea egin beharko dute edo Duranan eta Zurbanon dauden landako bilketaguneetara eraman beharko dituzte.

#### **43. artikulua. Etxeko hondakin arriskutsuak**

1. Etxeetan sortzen diren etxeko hondakin arriskutsuak puntu berde mugikorrera eraman beharko dira.

#### **44. artikulua. Sukaldeko olioak**

1. Debekatuta dago sukaldeko olioak ur saneamenduko sarera isurtzea, bai eta beste hondakin mota batzuk biltzeko jarritako edukiontzietan sartzea ere.

2. Erabiltzaileek tapoi haridunen bidez ongi itxitako plastikozko ontzietan sartu beharko dute etxeetan sortutako sukaldeko olioak, eta xede horretarako jartzen diren edukiontzietan sartu beharko dituzte ontziak edo, bestela, puntu berde mugikorrera eraman.

3. Edukiontzi horietan, sukaldeko olioaren hondakinak besterik ezin izango da sartu.

4. Bide publikoan sukaldeko olioak sartzeko edukiontzirik ez dagoen herrietan, puntu berde mugikorrera eraman behar dira, herritik igarotzen denean.

5. Zerbitzu-industrietako olioak biltzeko pribatuko zerbitzuen bidez kudeatu behar da. Zerbitzu horiek pertsona edo erakunde titularrak izan beharko dituzte eta emate agiriak urtebeteko epean gorde beharko dituzte, udalak eskatuz gero, aurkezteko.

#### **45. artikulua. Pilak**

1. Erabiltzeko pilak edukiontzi egokietan sartu beharko dituzte erabiltzaileek, hots, udaletxean, osasun etxean, gizarte eta kultura etxean, kontzejuko aretoetan eta abarretan jarritakoetan; Bestela, puntu berde mugikorrera eraman beharko dituzte.

2. Pilak ezin dira, inola ere, poltsen barruan bildu, ezta beste hondakin mota batzuk biltzeko edukiontzietan sartu ere.



**46. artikulua. Ehunak, arropa eta oinetakoak, liburuak, etxetresna txikiak...**

1. Ehun, oinetako eta osagarrien hondakinak, bai eta erabiltzaileak berrerabiltzeko modukotzat jotzen dituen gauzaki guztiak ere, hala nola erremintak, koadroak, liburuak, jostailuak, gailu elektriko eta elektroniko txikiak eta bazarreko gauzak Durana eta Zurbano herrietan xede horretarako jarrita dauden edukiontzietan sartu behar dira edo, bestela, puntu berde mugikorrera eraman.

2. Mota horretako hondakinak poltsa itxietan bildu behar dira beti.

3. Esandako edukiontzietan, ezin dira sartu ebaki dezaketen elementuak (aiztoak, guraizeak, cutter direlakoak, ontziteria...) ezta gai toxiko edo arriskutsuak ere, besteak beste, garbitzeko produktuak, disolbatzaileak, urragarriak, esprai edo margoak.

**47. artikulua. Puntu berde mugikorra**

1. Udalak hondakin hauek biltzeko zerbitzua eskainiko du puntu berde mugikorraren bidez. Zerbitzu horri atxikitako ordutegiak eta ibilbideak behar bezala argitaratuko dira webgunean: [www.arratzua-ubarrundia.eus](http://www.arratzua-ubarrundia.eus):

– Sukaldeko olioak, kaleko edukiontzirik jarrita ez duten herrietan.

– Etxeko hondakin arriskutsuak.

– Arropa eta oinetakoak biltzeko edukiontzietan sartzen ez diren etxetresna elektriko eta elektronikoak, edo mota honetako hondakinak sartzeko edukiontzia jarrita ez dituzten herrietan edo hondakinak edukiontzietan sartzen ez direnean.

**7. titulua. Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak****1. kapitulua. Arau orokorrak****48. artikulua. Sailkapena**

1. Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak bitan sailkatzen dira: eraikuntzako obra txikiko edo etxeko konponketako hondakinak eta eraikuntzako obra handiko eta eraispenerako hondakinak.

2. Etxeko eraikuntzako edo konponketako obra txikiko hondakinak ditugu etxebizitza, denda, bulegoa edo zerbitzuen sektoreko higiezin eraikitze edo eraisteko obretan sortutakoak, teknika bakunekoak, eraikuntza apala dutenak eta munta ekonomiko txikikoak direnak, betiere bolumenaren, erabileraren, erabilera erkideko instalazioen edo etxebizitza nahiz lokal kopurua- ren aldaketarik eragiten ez dutenak eta profesional tituludunek sinatutako proiekturik behar ez dutenak.

3. Obra handiko hondakintzat hartuko dira aurreko definizioan aintzat hartu ezin diren gainerako guztiak.

4. Indarrean dagoen legeriak xedatzen duenari kalterik egin gabe, obra hauek betiere obra handitzat hartuko dira:

– Urbanizazio obrak eta bide azpiegiturak eraikitze obrak.

– Eraikuntza berriko etxebizitzak eraikitze obrak, munta txikiko eta teknika bakunekoak izan ezean, baldin eta, behin-behinean edo behin betiko, egoitzazkoak edo izaera publikokoak ez badira eta solairu bakarrekoak badira.

– Lehendik dauden eraikinen gainean egindako lanak, betiere lehengo egitura arkitektoni- koa aldatzen badute -halako lantzat hartuko dira erabateko jarduketak edo kanpoko osaeraren, bolumetriaren edo osoko egituraren funtsezko aldaketa dakartenak, edota eraikinaren ohiko erabilerak aldarazteko xedea dutenak.

– Estalki eta fatxaden zaharberritzeak, baita teilaberritzeak ere.

– Erabateko jarduketatzat har daitezkeen obrak, eraikin katalogatuetan edo ingurumen, historia edo arte arloko babesen bat duten eraikinetan egiten direnak, baldin eta babesaren legezko araudi bidez edo hirigintza agiri bidez araututa badago eta babestutako elementu edo ataletan egiten diren obra partzialak.

#### **49. artikulua. Biltzeko arau orokorrak**

1. Guztiz debekatuta dago:

– Zeinahi obratako hondakinak etxeko edo merkataritzako hondakinak biltzeko edukiontzietan sartzea.

– Zeinahi hondakin bide publikoan uztea, obrako hondakinak sartzeko edukiontzien barruan izan ezik edo, bide publikoa okupatzeko baimen egokia eskuratuta, zakuen barruan daudenak izan ezik.

#### **50. artikulua. Obrako edukiontzia bide publikoan**

1. Bide publikoa obrako hondakinak sartzeko edukiontzi edo zakuez okupatzeko, baimen egokia eskuratu beharko da aurretiaz eta dagokion tasa ordaindu beharko da.

2. Obra batean sortzen den hondakinen bolumena 5 m<sup>3</sup>-tik beherakoa bada, hondakinak zakuen barruan pilatu beharko dira.

3. Beterik daudenean, edukiontziak edo zakuak material egokiko olana edo oihalez estali beharko dira, zeharo estali ere, hondarren isuriak eta haizearen eraginez gerta daitezkeen hondakinen sakabanatzeak ekiditeko.

4. Bete gabeko obrako edukiontziak edo zakuak ere osorik estali behar dira lan ordutegitik kanpo.

5. Debekatuta dago hondakinak edukiontzi edo zakuetan sartzea guztizko edukieratik at, bakoitzaren motaren arabera. Hala, hondakinen garaierak ezin izango du inola ere alboen garaira gaingiditu. Beste alde batetik, ezin izango da erabili edukiontzien tamaina edo edukiera handitzen duen elementurik.

6. Era berean, obrako edukiontzietan edo zakuetan ezin izango da sartu bide publikoa erabiltzen duten pertsonentzat, auzokideentzat edo edukiontzi nahiz zakuak jartzen direneko ingurumenaren babesarentzat edo estetikarentzat arriskutsua izan daitekeen gai arriskutsurik duen hondakinik.

7. Hondakinak laneko orduetan sartu behar dira edukiontzietan edo zakuetan, auzokideei eragozpenik sorrarazi barik.

8. Aurreko atalean araututakoa urratzen dutenek zehapena izango dute, salbuespeneko inguruabarrak direla eta, udal zerbitzuen berariazko baimena erdietsiko balute izan ezik.

#### **51. artikulua. Garraioa**

1. Obren ziozko lurak eta hondakinak garraiatzeko ibilgailuek, ezinbestean, baldintza egokiak izan beharko dituzte hondakinak bide publikoaren gaineko sakabanatzea saihesteko.

2. Debekatuta dago garraiatutako materialak kamioiaren kutxaren, edukiontzia edo zakuen goialdeko muturretatik gora ateratzea.

3. Nahitaezkoa da zama estalita eramatea, hautsik barreiatu ez dadin.

#### **52. artikulua. Garbiketa**

1. Bide publikoa garbi eduki behar da. Horretarako, prebentzio neurriak hartu beharko dira eta, beharrezkoa balitz, zuzentze neurriak.

2. Udalak gurpilak garbitzeko ekipoak instalatzeko eskatu ahalko du, bide publikoa zikin dezaketen kamioien igaroa dakarten obrei dagokienez.

3. Hala berean, bide publikoa erratzez garbitzeko eskatu ahalko du udalak, behar bezala egon dadin.

4. Nolanahi ere, udalak garbiketa lanak egin ahalko ditu era subsidiarioan, eta zerbitzu horien ziozko kostua obren sustatzaile edo egileei egotziko die, unean-unean sor daitekeen erantzukizunari kalterik egin gabe.

## 2. kapitulua. Obra handiko hondakinak

### 53. artikulua. Araudi aplikagarria

1. Etxeko eraikuntzako eta konponketako obra txikiko hondakintzat jotzeko baldintzak betetzen ez dituzten hondakinak estatuko araudiaren eta autonomia erkidegoko arloko araudiaren eraginpekoak izango dira.

2. Hondakin horiei gagozkiela, udalaren kontrolaren administrazio fluxuaren kudeaketari buruzko alderdiak arautzen dira atal honetan.

### 54. artikulua. Aurretiazko dokumentazioa

1. Obra txikitat jo ezin daitekeen zeinahi obraren proiektu teknikoarekin batera, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen dituen azterketa aurkeztu beharko da.

2. Azterketan, hondeaketa lurra eta horien xedea jaso beharko dira, adierazitako kostuak material horiei ere dagokien gastua aintzat har dezan, direla naturalak, direla kutsatuak. Horretarako, hondeatutako lurren balantzea egingo beharko da, eta obran bertan zenbateko bolumena berrerabiliko den adierazi beharko da; hala, kudeatzeko modua proposatu beharko da enpresa kudeatzaile baten bidez, barruko kudeaketaz erabiltzen diren lurren kasuan.

3. Eraikinen eta lurren kutsadura kentzeko kostuak ere aurrekontuan jaso beharko dira.

4. Azterketaren balioespenean, trataeraren ziozko gastuak ez ezik, aurrekontuak kostu hauek ere jaso beharko ditu:

– Zatikien sailkapena obran bertan, araudi aplikagarriarekin bat etorrira.

– Bilketa eta babes neurriak.

– Zama eta helmugarainoko garraioa.

– Hala badagokio, baliarazpena lekuan bertan eta babes neurri egokiak, programa analitikoaren ziozko kostuak ere kontuan hartuta.

– Bidezkoa bada, prestakuntza eta zaintzaren ziozko kostuak hondakinak kudeatzeko plana behar bezala garatzeko.

5. Ez da sarrerarik onartuko aurrekontuan, esate baterako, metalen salmentaren ziozko sarrerak edo balio positiboa daukan beste hondakinen baten kudeaketaren ziozko sarrerak.

### 55. artikulua. Hondakinak gaika bereizteko espazio nahikorik eza

1. Obraren espazio fisikorik ez dagoelako edo segurtasun neurriak direla tarteko, banaketa hori jatorrian egiterik ez dagoenean, edukitzaileak hondakinen kudeatzaile bati eska diezaioteko frakzioak banatzeko, obratik kanpo dagoen eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak tratatzeko instalazio batean.

2. Espazio nahikorik ez dagoela justifikatzeko, ez da nahikoa izango banatu beharreko hondakinak beste edukiontzira bide publikoan edo orubean jarri ezin direla egiaztatzea.

3. Edukiontzia eraikinaren egituran bertan jartzeko aukera aztertu beharko da, bai eta edukiontzi flotatzaileak erabiltzeko aukera ere. Edukiontzi flotatzaileak dira hondakin bat baino gehiago biltzeko erabiltzen direnak (ez aldi batera, ordea). Hondakinak tarteko lekuetan bilduko dira aldi baterako eraikinaren solairuetan.

Frakzioen baten bolumena nahikoa denean, hondakinak behin eramango dira edukiontzira, betetzeko, hondakinak ateratzeko eta beste hondakin bat sartzeko.

#### **56. artikulua. Finantza bermea**

1. Hirigintzako lizentzia eskuratu behar duten obren pertsona eta erakunde sustatzaileek, bai eta gauzapean aginduen behartutakoek (premiazko obrei dagokienez izan ezean), finantza bermea eratu beharko dute udalak ezartzen duen zenbatekoaren arabera, obraren baldintzak aintzat hartuta.

2. Ez dute finantza bermerik eratu beharko Batasunaren Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistemari (EMAS) atxikitako antolakundearen erregistroan izena emanda daudenean, indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzei jarraituz.

3. Bermearen zenbatekoa hondakinak kudeatzeko azterketan aurreikusten den hondakinak kudeatzeko kostutzat adierazten denaren arabera kalkulatu da, eta zenbateko hori bider 1,2 egingo da. Zenbatekoa ez da inola ere 250 eurotik beherakoa izango (zenbateko hori urtero-urtero eguneratuko da aldi horretan metatutako KPIren arabera).

4. Bermearen xedea bada hondakinak behar bezala kudeatzen direla ziurtatzea eta, hala egingo ez balitz, udalak baliabide nahikoak eskuratzea era subsidiarioan jarduteko. Beraz, zenbatekoa kalkulatu beharko da kudeaketaren kostu osoari heldu ahal izateko, honako gastu hauek guztiak aintzat hartuta: bereizketa, bilketa, garraioa eta tratamendua.

5. Aurreko atalean xedatutakoa bermatzeko, udalaren zerbitzu teknikoek hondakinak kudeatzeko azterketa ebaluatuko dute eta, bidezkoa balitz, udalak arrazoiturik ezarriko dio pertsona sustatzailearen aurreikuspenaren arabera izango litzatekeen zenbatekoa baino handiagoa.

6. Nolanahi ere, bermeak indarra izan beharko du ezarritako zenbatekoaren neurrian harik eta udalak bermea itzultzeko eskariaren aldeko erabakia hartu arte.

7. Bermea eskudirutan edo zor publikoko balioetan, abal bidez, kauzio aseguruaren kontratu bidez edo Zuzenbidean baliagarria den beste zeinahi modutan eratu beharko da. Nolanahi ere den, bermeak ordaingarria izan behar du lehen errekerimendua egin eta berehala, agindu edo eskusio onurarik gabe.

8. Udalak eskudirutan eraturako bermea itzultzeko eskubidearen preskripzioa deklaratu du erazten denetik 20 urtera, interesdunek jabetzaren eskubidea egilesteko inongo kudeaketarik egiten ez badute.

#### **57. artikulua. Lizentzia behar duten obren amaierako kudeaketa txostena**

1. Pertsona edo erakunde sustatzaileak hondakinen kudeaketaren justifikazioa egingo du obrak amaitutakoan; ildo horretan, ez da egiaztapen partzialik onartuko.

2. Bermea itzultzeko eskaria egiteko, eskabidea aurkeztu beharko da, kudeaketaren amaierako txostenarekin batera, obraren zuzendaritzaz arduratzen den goi mailako teknikari batek sinatuta eta indarrean dagoen araudiak xedatutakoari jarraituz egiaztatuta. Obraren zuzendaritzaz arduratzen den goi mailako teknikariaren sinadura ezin izango da lurzoru kutsatuen arloan onetsita dagoen erakunde baten oniritziaren ordeztu, lurzoru kutsa dezaketan jarduerak pairatu dituzten edo pairatzen ari diren eraikinaren eraispenetan izan ezean.

3. Txostenean, pertsona edo erakunde sustatzaileak egokitzen dituen arrazoibide guztiak jaso beharko ditu, hondakinak kudeatzeko azterketan ageri diren aurreikuspenekiko aldeak bidezkoetzeko, bermea itzultzeko bidezkoetasuna funtsatze aldera.

4. Gainera, amaierako txostenak hondakinen helmugari buruzko egiaztapen guztiak jasotzen dituen eranskina jasoko du.

5. Hondakinak kudeatzeko egiaztapenek ziurtatu beharko dute hondakinen jatorria amaierako txostenaren xede den obra dela.

6. Egindako kudeaketa justifikatzeko helburuz, agiri hauek onartuko dira:

a) Hondakinaren kudeatzaileak egindako ziurtagiria.

b) Hondakinaren pertsona edo erakunde kudeatzaile baimenduaren kontrol eta jarraipen agiria.

c) Betelaneko materiala lur eta arroka ez kutsatuetan erabili dela egiaztatzen duen emate agiria.

d) Dena delako hondakinaren salmenta faktura.

e) Emate agiria.

f) Obraren bertan baliarazitako lur eta arroka ez kutsatuei dagokienez:

– Obra zuzendaritzak egindako lur horien erabilerari buruzko zinpeko adierazpena.

g) Beste obra batzuetan baliarazitako lur eta arroka ez kutsatuei dagokienez:

– Pertsona edo erakunde baimendunak egindako ziurtagiria.

– Pertsona edo erakunde baimendunak egindako kontrol eta jarraipen agiria.

– Xede obraren proiektuaren laburpena, lurren inportazioaren nondik norakoak adierazita.

h) Lekuan bertan baliarazitako eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen ziozko materialei dagokienez:

– Instalazioan jarduten duen pertsonaren baimenari buruzko ziurtagiria, pertsona edo erakunde kudeatzaile baimendunak egiaztatuta.

– Obrako zuzendaritzaz arduratzen den goi mailako teknikariaren zinpeko adierazpena, bertan baliarazitako materialak erabili direla egiaztatzen duena.

i) Obraren baliarazi, baina beste obra batean erabilitako materialei dagokienez:

– Instalazioan jarduten duen pertsonaren edo erakundearen baimenari buruzko ziurtagiria, pertsona edo erakunde kudeatzaile baimendunak egiaztatuta.

– Helmugako obraren proiektuaren laburpena, material horiek jasoko direla adierazita.

– Obrako zuzendaritzaz arduratzen den goi mailako teknikariaren zinpeko adierazpena, material horiek jasoko direla adierazita.

7. Amaierako txostena lurzorua kutsa dezakeen jardueraren bat pairatzen edo pairatu duen eraikin baten eraispenerako obrari buruzko denean, lurzoru kutsatuen arloan jarduteko baimena daukan erakunde batek sinatu beharko du, urriaren 10eko 199/2006 Dekretuak, Lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatze sistema ezartzen duenak, xedatutakoari jarraituz.

8. Obra batean, hainbat eraikin eraitsi behar direnean, aurreko atalean azaldutako erakunde egiaztatuak kutsatuta egon daitezkeen eraikinetan baino ez du jardungo, betiere eraikin horiek eraistean sortutako hondakinen trazabilitatea bermatzen bada.

9. Amaierako kudeaketa txostenak 7. atalean jasotzen diren obretako batez diharduenean, udalak Eusko Jaurlaritzara helaraziko du, hark nahikotasuna ebalua dezan. Hilabeteko epean erantzunik jaso ezean, txostena aldekotzat joko da.

10. Nolanahi ere, aurreko atalean esandako aldeko txostenak, adieraziak edo ustezkoak, ez du udalaren irizpena baldintzatzen eta, hortaz, udalak berak erabaki beharko du, azkenean, bermearen inguruan.

#### **58. artikulua. Urbanizazio proiektuen amaierako kudeaketa txostena**

1. Urbanizazio proiektuak onartzeari buruzko ebazpenean, amaierako kudeaketa txostena aurkez dadila eskatuko da; txosten horretan, indarrean dagoen legeriak eskatzen dituenak jaso beharko dira eta obrako zuzendariak sinatu beharko du agiria.

2. Hondakinen kudeaketa desegokia (bereizketa eta xedea) egin delako zantzurik antzemanaz gero, udalak bide garbiketara eta beste arlo batzuetan dituen eskumenak baliatuz ezar ditzakeen zehapenak gorabehera, ingurumen organoari jakinaraziko dio kasua, hark beharrezko neurriak har ditzan.

#### **59. artikulua. Bermea itzultzeko eskaera**

1. Hondakinen sortzaileak eraturako bermea itzultzeko eskatu beharko dio udalari. Horretarako, agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

– Eskaera orria.

– Bermea eratu delako egiaztatzea.

– Amaierako kudeaketa txostena, gauzatu diren kudeaketa eragiketa guztiei buruzko egiaztatzeak erantsita.

2. Dena dela, obra amaitzen denetik 6 hilabetera, emandako lizentzia edo luzapenei jarraituz, udalak lizentziaren titularrari (persona edo erakundeari) amaierako kudeaketa txostena aurkezteko eta, horrekin batera, gauzatu diren kudeaketa eragiketa guztien egiaztatzeak aurkezteko eskatu ahalko dio.

3. Errekerimenduari hilabeteko epean jaramonik egiten ez bazaio, bidezkoak diren zehapenak gorabehera, udalak fidantza egikaritu ahal izango du, interesdunari entzun eta gero.

#### **60. artikulua. Bermea itzultzeko proposamena**

1. Udal zerbitzu teknikoek bermeak itzultzeko eskaeren berri eman eta hirigintza lizentziaren eraginpean dauden obren amaierako kudeaketa txostenak ebaluatuko dituzte, egiaztapen erakundeek egiten dituzten txostenak kontuan hartuta, indarrean dagoen legeriak arrautzen duenari jarraituz.

2. Txosten teknikoek bermea itzultzeko eskaera arrazoitu beharko dute, enpresa edo pertsona sustatzaileak hondakinak behar bezala kudeatu dituela egiaztatzen duenean, udal zerbitzu teknikoek iritzira, hondakinak kudeatzeko azterketan aurreikusi diren hondakinen bolumenarekin bat datozenean. Aurreikuspena eta kudeatutako bolumena ez dira zertan zehatz-zehatzak izan; hondakinak sorrarazten dituen pertsonak arrazoitzen dituen inguruabarrak eta egiaztapenak kasuan-kasuan ebaluatuko dira.

#### **61. artikulua. Errekerimendua**

1. Kudeaketa azterketan jasotako aurreikuspenen aldean, amaierako kudeaketa txostenean adierazitako desbideratzeak behar bezala justifikatuko ez balira, udalak pertsona edo erakunde sustatzaileari eskatuko dio kudeatu gabeko hondakinen kudeaketa egiazta dezala eta, horretarako, 10 eguneko epea izango du sustatzaileak.

2. Pertsona edo erakunde sustatzaileak emandako informazio osagarria jaso ondoren, udalaren zerbitzu teknikoek hondakinen kudeaketa behar bezala egin dela ebatziko balute, bermea itzultzeko proposatuko lukete.

3. Bestela, udalaren zerbitzu teknikoek hondakinen kudeaketa behar bezala justifikatu ez dela ebatziko balute, bermea atzemateko eskatuko lukete, artikulua honetan ezarritakoari jarraituz.

#### **62. artikulua. Bermea egikaritzeko proposamena**

1. Txosten teknikoak bermea egikaritzea proposatu beharko du era arrazoituan eta, bertan, hurrengo atalean adierazitako alderdiak zehaztu beharko ditu.

2. Alde batetik, bermatutako zenbateko osoa edo haren zati bat atzemateko bidezketasuna azalduko da; azken kasuan, zenbateko kopurua egikaritu behar den justifikatu beharko da.

a) Berme oso-osorik egikarituko da hondakin bakar baten xedea ere justifikatzen ez denean edo, bestela, hondakin guztiak edo horien zati bat obran bertan edo udalerriko beste edozein lekutan utzi direla egiaztatzen denean.

b) Gainerako kasuetan, bermearen zati bat egikarituko da, sustatzaileak kudeatu gabeko hondakinei dagokienez, udalak osoko kudeaketa egin beharko balu bere gain hartu beharko lukeen kostuaren heinean (bereizketa, bilketa, zabalana, garraioa eta tratamendua).

3. Atzemandako bermearen xedea, hasteko eta bat, hondakinen kudeaketa subsidiarioa izango da eta/edo udalerriko ingurumena hobetzeko neurriak hartzea.

#### **63. artikulua. Ebazpena**

1. Bermea egikaritzeko ebazpena eman baino lehen, hondakinak sortu dituen pertsonari entzun egin beharko zaio, 10 eguneko epean, eta aldi horretan egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkeztu ahalko ditu.

2. Ebazpena eman eta interesdunari jakinarazi beharko zaio 3 hilabeteko epean, bermea itzultzeko eskaera egiten den egunetik zenbatzen hasita. Interesdunari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik prozedura gelditzen bada, ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epearen zenbaketa eten egingo da. Aipatutako epea igarotakoan, itzultzeko eskaerari aldeko erantzuna eman zaiola ulertuko da eta bermea itzuli egingo da.

3. Hiru hilabeteko epea igarotzen bada udalak bermea itzuli ez duela:

– Eskudirutan edo zorraren baloietan eratu diren bermeei dagokienez, udalak bermearen zenbatekoa itzuli beharko du, eta epemuga igaro denetik bermea itzultze duen arteko epeari dagokion diruaren legezko interesak ere ordaindu beharko ditu, udalari egotzi ahal zaion arrazoiaren bategatik bermea lehenago itzuli ez bada.

– Abal edo kauzio aseguru bidez eraturako bermeei gagozkiela, udalak itzuli beharko du eta interesdunak bermearen kostua erreklamatu ahalko du bermea era eraginkorrean itzuli arte.

#### **64. artikulua. Jarduteko prozedura, kudeaketa egiaztatu gabeko obrako hondakinak aurkituz gero**

1. Hondakin guztiak edo horien zati bat obra egin deneko tokian geratzen badira edo udalerriko beste tokiren batean geratzen badira, udalak hondakinak kudeatuko ditu.

2. Hondakinak kudeatzeko zenbatekoa 59.2.a) artikuluaaren arabera kalkulaturako zenbatekoa baino txikiagoa bada, aldea udalerriko ingurumena hobetzeko jardueretan erabiliko da.

3. Aurkitutako hondakinen kudeaketaren ziozko zenbatekoa bermearena baino handiago izango balitz, aldea eskatuko da premiamendu bidez.

**65. artikulua. Jarduteko prozedura, kudeaketa egiaztatu gabeko obrako hondakinak aurkitu ezean**

Amaierako kudeaketa txostenean egiaztatu ez diren hondakinak aurkituko ez balira, egikaritutako bermearen udalerriko ingurumena hobetzeko jarduerak egiteko erabiliko da.

**66. artikulua. Lehen erabilerako lizentzia**

Eraikin baten lehen erabilerako lizentzia emateko, nahitaezkoa izango da hondakinak behar bezala kudeatuko direla egiaztatzea.

3. kapitulua. Eraikuntza obra txikiko eta etxeko konponketetako hondakinak

**67. artikulua. Aurretiazko dokumentazioa**

1. Obraren lizentziaren eskatzaileak sortuko duen hondakin bolumenaren zenbatespena aurkeztu beharko du, eta zer hondakin mota sortuko duen adierazi beharko du.

2. Aurretiazko komunikazioaren eraginpeko obretan, eskatzaileak 66. artikuluan ezarritako fidantzaren egiaztagiria ere aurkeztu beharko du. Nolanahi ere, geroko kontrolaren ondorioz, udalak berme handiagoa eskatu ahal izango dio.

**68. artikulua. Lizentzia izapidetzea**

1. Udalaren zerbitzu teknikoek hondakinen sorkuntzaren aurreikuspena egiaztatuko dute lizentziaren izapidetzearen barruan.

2. Lizentzia ez da egiletsiko hondakinen kudeaketa zuzena bermatzeko eskatzen den bermea eratu arte.

**69. artikulua. Fidantza**

Fidantzaren zenbatekoa, gutxienez, 120 eurokoa izango da eta eskudirutan edo banu txeke adostuz eratuko da. 30.000 eurotik gorako obra aurrekontuetan, fidantza ehuneko 0,4koa izango da. Gutxieneko zenbatekoa hiru urterik behin eguneratuko da, aldi horretan metatutako KPIren arabera.

**70. artikulua. Hondakinen xedea**

1. Obren lizentzia esleitzen denean, interesdunak proposaturiko xedea aintzat hartuta, hondakinak kudeatzeko modua adieraziko da. Kudeaketa honako era hauetan egin ahal izango da:

– Durana eta Zurbano herrietan dauden landako puntu garbietan, eraispeneko materialak (adreiluak, hormigoia, lauzak, harriak, zeramika, egurra, hondakin metalikoak...).

– Puntu berde mugikor edo garbiguneetan: margoak, detergenteak, kolak, erretxinak, gehigarriak...

– Kudeaketa enpresa baimendu baten bidez: gainerako produktu arriskutsuak.

2. Edozein kasutan, hondakinen lagapena agiri eraginkorrean jasota geratu behar da.

**71. artikulua. Hondakinak bereiztea**

1. Obra hasten denetik, hondakinak bereizteko gutxieneko baldintzak bete beharko dira eta, ildo horretan, honako hondakinak bereizi, bildu eta gaika kudeatu beharko dira:

– Hondakin arriskutsuak.

– Adreiluek, hormigoiak, lauzek, harriek, zeramikak, egurrak sortutako hondakinak eta hondakin metalikoak.

– Amiantodun hondakinak.

– Gainerako hondakinak (igeltsua ere bai).



2. Obren tamaina aintzat hartuta, baldintza hertsiagoak ezarri ahalko dira lizentzian.

3. Obra txikien ziozko fibrozementu edo amiantozko hondakinak desinstalatu beharko dira, garraiatzeko egokitu eta amiantoaren ziozko arriskua kudeatzen duten enpresen erregistroan (RERA1) jasota dauden enpresek kudeatu beharko dituzte, martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuak, Amiantoaren eraginpean egoteko arriskuan duten lanei aplikatu dakizkiokeen segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituenak, arautzen duenari jarraituz.

#### **72. artikulua. Fidantza itzultzeko eskaera**

1. Obrak amaitzen direnean, interesdunak fidantza itzultzeko eskatu beharko dio udalari eta, horretarako, agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

– Eskaera orria, diru sarrera bankuko zein kontu zenbakitan jaso nahi duen adierazita, bai eta obrako lizentziaren zenbakia adierazita ere.

– Fidantza ordaindu delako egiaztagiria.

– Hondakinen kudeaketari buruzko egiaztagiriak eta/edo landako puntu garbiaren eta/edo puntu berde mugikorraren edo garbigunearen arduradunaren idatzia.

#### **73. artikulua. Fidantzaren xedea**

1. Zerbitzu teknikoek aurkeztutako agiriak aztertuko dituzte eta fidantza itzultzeko edo atzemateko proposatuko dute. Azkena proposatuko da hondakinen kudeaketa arrazoibidez egiaztatzen ez denean.

2. Fidantzaren xedeari buruzko ebazpena bi hilabeteko epean hartu eta jakinarazi beharko da; hala berean, 10 eguneko epea eman beharko zaio pertsona edo erakunde interesdunari hari entzuteko, fidantza atzematen baldin bada.

3. Kasu horretan, fidantzaren xedea izango da hondakinen kudeaketa era subsidiarioan gauzatzea edo, hori ezinezkoa bada, udalerrian ingurumen hobekuntzako jarduerak egitea.

#### **4. kapitulua. Udal obrak**

#### **74. artikulua. Birziklatutako agregakinen erabilera**

Udalak sustatzen dituen obretan, agregakinek erabili behar direnean, erakunde kudeatzaile baimenduak emandako ahalik eta material birziklatu gehien erabili behar dira, indarrean dagoen araudian ezarritako baldintza tekniko eta ingurumen baldintzen arabera, agregakinen erabilera kontuan hartuta.

#### **75. artikulua. Udal obretako hondakinen kudeaketa**

1. Udalaren obretako hondakinen kudeaketaren azterketa idaztean, kontratistak bete beharreko prebentzio, bereizketa eta birziklatze helburuak jasoko dira; horrez gain, udalak zehapenak ezarri ahalko ditu proposaturiko helburuak bete ezean.

2. Udalaren obrek hondakinak kudeatzeko plan bakarra izan behar dute. Kontratista nagusiak aurkeztuko du plan hori eta, udalak onartu ondoren, kontratu lotura izango du. Plan horretan, hondakinak kudeatzeko azterketan ezarritako helburuak nola beteko diren adierazi beharko da.

3. Obrak amaitutakoan, kontratista nagusiari amaierako kudeaketa txostena aurkezteko eskatuko zaio. Txosten horrek indarrean dagoen araudian ezarritako alderdiak jaso beharko ditu eta obra zuzendaritzak sinatu beharko du.

4. Kontratista nagusia den pertsonak edo erakundeak azpikontraten jarduera koordinatu eta zaindu beharko du, hondakinak kudeatzeko plana bete dadila bermatzeko.

5. Hondakinen kudeaketa egiaztatzen ez diren kasuak kontratuaren urraketatzat joko dira.

6. Aurrekoaz gain, hondakinen kudeaketa desegokia ingurumen organoari jakinaraziko zaio, hark neurri egokiak har ditzan.

## **8. titulua. Ikuskapena, kontrola eta zehapena**

### 1. kapitulua. Ikuskapena eta kontrola

#### **76. artikulua. Ikuskapen zerbitzua**

1. Ordenantza honetan xedatutakoa betearazteko ikuskapen eta zaintza eginkizunak hirigintzako langile teknikoei eta udal aguazil gisa jarduten duen pertsonari dagozkie.

2. Udalaren beste zerbitzuren batek, bere eskumenen esparruan, honako ordenantza hau urratu dela antzemanaz gero, zerbitzu eskumendunari jakinaraziko dio.

3. Egiten diren ikuskapen bisitak ikuskapen aktetan jasoko dira; jarduleak akta sinatuko du eta kopia emango dio pertsona edo erakunde interesdunari. Aktekin indarreko legeriak eskatzen dituen eskakizun guztiak beteko dituzte, egiazkotasun presuntzioa izango dute eta frogatzat balioko dute, pertsona edo erakunde interesdunek, nor bere eskubide eta interesen bidezko defentsan, aurkezten dituzten frogei kalterik egin gabe.

#### **77. artikulua. Ikuskapen zerbitzuen izaera**

1. Indarrean dagoen legeriak xedatzen duenari jarraituz, aurreko artikuluan aipatzen diren langileak, ikuskapen eginkizunak betetzen ari direla, agintaritzaren agenteak izango dira eta, aurretiaz abisatu barik, identifikazio txartel egokia izanik, ordenantza honetan arautzen diren jarduerak garatzen diren instalazioetan sartu ahal izango dira.

2. Era berean, zabor poltsen edukia edo gainerako hondakin edukiontzien edukia ikuskatzeko eskumena izango dute.

#### **78. artikulua. Laguntzeko eginbeharra**

Hondakinen pertsona edo erakunde edukitzaileek, sortzaileek eta kudeatzaileek eta obren titularrek haien eginkizunak garatzen ari diren langileei laguntzeko eginbeharra dute; hala, instalazioetan sartzen utzi behar diete eta beharrezko agiriak erakutsi behar dizkiete, langileek hala eskatuz gero, ikuskapen zereginak behar bezala bideratzeko.

#### **79. artikulua. Laguntza teknikoak**

1. Udalak kontrol eginkizunak gauzatu ahal izango ditu kanpoko pertsona fisiko edo juridikoen laguntzaz. Halakoetan, azkenek egindako jardueren txostena prestatuko dute eta behar-takoak dokumentatuko dituzte material grafikoa erabiliz.

2. Kontrol horien guztien emaitzak salaketa gisa balioko du, hala badagokio, zehapen prozedura ofizioz hasarazteko ondorioetarako.

### 2. kapitulua. Arau hausteak eta zehapenak

#### **80. artikulua. Subjektu erantzuleak**

1. Honako ordenantza honetan adierazitako betebeharrak urratzeagatik erantzukizuna subjektu erantzuleei eskatuko zaie, haiek egindakoengatik ez ezik, haien ardurapeko pertsonak egindakoengatik ere bai.

2. Honako ordenantza honetan ezarritakoaren ondorioetarako eta indarrean dagoen legeriak xedatutakoari jarraituz, hondakinek beti izango dute titular erantzule bat. Erantzukizun hori pertsona edo erakunde edukitzaile, sortzaile eta kudeatzaileei egokituko zaie.

3. Administrazio erantzukizunetik at geratuko dira hondakinak udalari ematen dizkietenak, araudian eta gainerako legeria aplikagarrian xedatutakoak aintzat hartuta, edo hondakinak kudeatzeko eragiketarako egiteko administrazio baimena duten pertsona edo erakundeen esku utzi

dituztenak, honako ordenantza honetan jasotzen denari jarraituz, betiere legezko eta arauzko betekizunak beteta.

4. Erantzukizuna solidarioa izango da pertsona edo erakunde kudeatzaileek araudi aplikagarrian adierazitakoei ez, hondakinak beste pertsona fisiko edo juridiko bati ematen dizkiotenean edo, hainbat pertsona edo erakunde erantzule egonik, horietako bakoitzak urraketan zer parte daukan zehaztea ezinezkoa denean.

5. Eginbehar kolektiboei dagokienez, hala nola auzoko edukiontzi edo konpostajeko instalazioen erabilera, zaintza eta garbiketari dagokienez, erantzukizuna auzoa osatzen duten pertsonen egotziko zaie, auzoa eratuta egon ezean.

### **81. artikulua. Arau hauste eta zehapenen preskripzioa**

1. Arau hauste arinek urtebetean preskribatuko dute, astunek hiru urtean eta oso astunek bost urtean.

2. Arau haustea egin zen egunetik hasita zenbatuko da arau haustearen preskripzio epea.

3. Etengabeko arau haustea eginez gero, preskripzio aldia jarduera amaitzen den egunetik hasiko da zenbatzen edo, bestela, arau haustea egin deneko azken ekintzatik hasita. Arau haustea dakarten egintzak edo jarduerak ezagutzen ez badira, kanpoko zantzurik ez dagoelako, epea egintzak agerian jartzen direnetik aurrera zenbatze hasiko da.

4. Preskripzioa eten egingo da interesduna jakinaren gainean egonik zehapen prozedurari ekiten zaionean, eta preskripzio epeak berriro jarraituko du zehapen espedientea hilabetez baino denbora luzeagoz etenda egon bada, baldin eta eten hori ustezko erantzulea den pertsonari edo erakundeari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik izan bada.

5. Arau hauste arinak egiteagatik ezarritako zehapenek urtebetean preskribatuko dute, arau hauste larriengatik ezarritakoek hiru urtean eta arau hauste oso larriengatik ezarritakoek bost urtean.

6. Zehapena jartzen duen ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen zehapenen preskripzio epea.

7. Interesduna jakinaren gainean dagoela, betearazpen prozedura hasteak preskripzio aldia etengo du. Zehapena ezarri zaionari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik prozedura hori bi hilabete baino denbora luzeagoan geldirik badago, preskripzio aldia berriro ere zenbatzen hasiko da.

### **82. artikulua. Berriro jartzeko eginbeharra**

1. Honako ordenantza honetan araututakoak urratzearen ziozko erantzukizuna eskatzeaz gain, aldarazitako egoera lehengoratzeko eskatuko zaio urratzaileari.

2. Aipatutako eskakizuna bete ezean, udalak lehengoratuko du egoera ordezko egikaritzapen bidez. Egin beharreko jarduketan ziozko kostuak subjektu erantzuleari egotziko zaizkio eta, gainera, kalte-galerengatik ordaina eskatuko zaio.

3. Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinei dagokienez, kostuak eta kalte ordaina 53 eta 66. artikuluek jasotzen duten bermea betearazita berreskuratu ahalko dira.

### **83. artikulua. Zehapen prozedura**

1. Honako ordenantza honetan arautzen diren araustearen ziozko administrazio prozedurak otsailaren 20ko 2/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoak, xedatzen duenari jarraituz izapidetuko dira.

2. Zehapena emateko organo eskumenduna Alkatetza izango da, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1 n) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

**84. artikulua. Administrazioko arau hausteak**

1. Administrazioko arau haustetzat joko dira honako ordenantza honetan xedatutakoa urratzen edo betetzen ez duten ekintzak edo ez-egiteak, bai eta aipagai darabiltzagun gaien arloan, estatuko edo autonomia erkidegoko legerian araututa dauden guztiak ere, ordenantza honetan jasotako manuek arau hausteak zehatzago identifikatu ahal izateari kalterik egin gabe.

2. Administrazioko arau hausteak honela sailkatuko dira: arinak, astunak eta oso astunak, artikulua hauetan ezarritakoak kontuan hartuta.

Arau hauste arin, astun eta oso astunen barruko jokabideak aldatu ahalko dira, jokabideen kalifikazioa aldatuta.

**85. artikulua. Arau hauste arinak**

1. Arau hauste arinak izango dira:

- a) Hondakinak edukiontzietatik kanpo edo kasuan-kasuan adierazitako lekutik kanpo uztea.
- b) Bide publikoa hondakin poltsetatik ateratako hondakinez edo haietatik isuritako likidoz zikintzea.
- c) Edukiontzietan itsasgarriak eta kartelak ipintzea.
- d) Hondakinak biltzea gaizki itxitako poltsetan edo poltsa desegokietan.
- e) Hondakin likidoak edo likidotu daitezkeenak sartzera edukiontzietan (edukiontzi egokian sartutako sukaldeko olioak izan ezik).
- f) Hondakinak ontziratuta gabe edo soltean sartzera edukiontzian, ordenantzak poltsa barruan sartu behar direla ezartzen badu.
- g) Gaikako bilketako edukiontzietan egokiak ez diren hondakinak sartzera, edo errefuseko edukiontzian gaikako bilketaz bildu beharko liratekeen hondakinak sartzera.
- h) Auzo konposta egiteko instalazioetara onartzen ez diren biohondakinak eramatea.
- i) Ontziak edo edukiontziak garbitzeko eginbeharrak ez betetzea, halakoak eskakizun badira.
- j) Udalaren edukiontzietan, hondakinak sartzera egutegitik eta/edo ordutegitik kanpo, ha-lakorik ezarrita balego.
- k) Tresnak bide publikoan uztea ezarritako egutegitik eta/edo ordutegitik kanpo.
- l) Etxeetan edo merkataritzako establezimenduetan sortutako hondakinak zakarrontzietan uztea.
- m) Udalari konpost egindako hondakinei buruzko informaziorik ez ematea, udalak eskatzen badu.
- n) Hondakinak uztea auzo konposta egiteko instalazioetan, udalaren baimenik gabe.
- o) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinez beteriko edukiontziak edo zakuak ez estaltzea, ordenantza honi jarraituz, estaltzea nahitaezkoa bada.
- p) Merkataritzako paper-kartoizko hondakinak tolestu gabe biltzea, edo honako ordenantza honetan xedatutakoak urratuta biltzea.
- q) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak bide publikoan uztea baimendutako aldian baino denbora luzeagoan.
- r) Gutxienez, 25 cm gainditzea edukiontzietako ertzen planoan eta/edo bilketan erabilitako ibilgailuetakoa eta/edo eraikuntza eta eraispenerako hondakinak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuetakoa.

2. Era berean, arau hauste arina izango da honako ordenantza honetan ezarritako debekuak urratzea edo egin beharreko egintzak ez egitea, betiere arau hauste astuntzat edo oso astuntzat jotzen ez badira, artikulua hauetan ezarritakoari jarraituz.

#### **86. artikulua. Arau hauste astunak**

1. Arau hauste astunak izango dira:

a) Bide publikoa garbitzeko eginbeharrak ez betetzea, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen edukiontzia edo zakuak ordeztan edo eramaten direnean.

b) Hondakinak ordenantza honetan ezarritako baldintzei jarraituz kudeatu direla egiaztatzen duen informazioa ez ematea edo ez aurkeztea.

c) Autokonpostaje bidez lortutako konposta erabiltzearen lursailetik kanpo biltzea, barreiatzea edo bertan behera uztea, udalaren baimenik gabe.

d) Auzo konposta egiteko instalazioak zaindu, mantendu, konpondu eta garbitzeko zereginak ez egitea, horiek guztiak egin behar badira.

e) Konpostatu ezin diren hondakinak auzo konposta egiteko instalazioetan biltzea, eta ordenantza honetan ezarritako biltze arauak edo udalak zabaltzen dituen erabilera jarraibideak ez betetzea.

f) Konpostaje arduradunak dauzkan eginkizunak ez betetzea.

g) Honako ordenantza honetan ezarritako kalitate kontrolak ez egitea edo udalean ez aurkeztea, konposta erabili edo banatu aurretik.

h) Hondakinak eremu publikoetan biltzea larrialdiko egoeretan edo ezinbesteko kasuetan, baldin eta bilketa zerbitzua aldi baterako aldatzen edo eteten bada, udalaren baimenik ez bada.

i) Hondakinak kudeatzea udalaren bilketa sistema ez den beste bideren bat erabiltzea, sistema horri atxikitzea nahitaezkoa bada, honako ordenantza honetan ezarritakoari jarraituz.

j) Baimenik gabeko erakunde bati hondakinak ematea.

k) Bilketa zerbitzutik baztertutako pertsonak hondakinak sartzea udalaren edukiontzietan.

l) Hondakinen zamalan eta garraioari lotutako eginkizunak eragozteko edo oztopatzea.

m) Udalaren edukiontzia udalaren baimenik gabe mugitzea, bai eta, mugituz gero, jatorrizko lekuan baldintza egokietan ez kokatzea.

n) Hondakinak kontrolik gabe uztea, isurtzea, biltzea edo ezabatzea eremu publiko edo pribatuetan, ekintza hori arau hauste oso larritzat jotzen ez denean.

o) Udalak emandako ontziei eta konpost egiteko instalazioei kalterik eragitea, ekintza hori arau hauste oso larritzat jotzen ez denean.

p) Ingurumen edo zirkulazio arazoak edo bide publikoan egitekoak diren ekitaldiak direla kausa, udalak eskatu ondotik, eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen edukiontzia edo zakuak ez kentzea.

q) Hondakinak sartzeko edukiontzia edo zakuak jartzea, bide publikoa okupatzeko baimenik eskuratu gabe.

r) Altzariak, etxetresnak, tresnak edo tamaina handiko beste edozein hondakin sartzeko beste mota bateko hondakinak biltzeko edukiontzietan edo esandako hondakinak bide publikoan, orubeetan edo lursail publiko nahiz pribatuetan uztea.

s) Hondakinen edukiontzietan, pintaketak egitea.

t) Pilak sartzeko beste hondakin mota batzuk biltzeko erabiltzen diren poltsa edo edukiontzietan.

- u) Ibilgailuak bide publikoan bertan behera uztea.
- v) Animalien gorpuak edo gorpu zatiak bertan behera uztea, hondakinen edukiontzietan sartzea edo baimendu gabeko lekuetan lurperatzea edo erretzea, ekintza hori arau hauste oso larritzat jotzen ez denean.
- w) Hondakinen zamlanak egitea edo eraikuntzako zein eraispenerako hondakinak biltzeko edukiontzia edo zakuak baimendutako ordutegitik kanpo erabiltzea.
- x) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak behar bezala ez bereiztea.
- y) Gutxienez, 50 cm gainditzea edukiontzietako ertzen plano eta/edo bilketan erabilitako ibilgailuetakoa eta/edo eraikuntza eta eraispenerako hondakinak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuetakoa.
- z) Edukiontzi eta/edo ibilgailuen altuera osagarriak erabiliz handitzea, betiere ekintza horrek pertsonentzako arrisku larririk ez badakar.
  - aa) Suteak egitea udalaren baimenik gabe edo udalari alde aurretik jakinarazi gabe.
  - bb) Bi arau hauste arin edo gehiago egitea urtebetean.
  - cc) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak pilatzea edo isurtzea horretarako baimenduta ez dagoen leku batean, ekintza hori arau hauste oso larritzat jotzen ez denean.
  - dd) Hondakin arriskutsuak eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen edukiontzietan edo zakuetan behar bezala berezita ez sartzea.
  - ee) Onartzen ez diren hondakin arriskutsuak udalaren edukiontzietan sartzea.
  - ff) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak erortzea garraiatzen direnean.
  - gg) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak behar bezala kudeatzeko eratu behar diren finantza bermea ez eratzea.
  - hh) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko amaierako txostena ez aurkeztea, txosten hori aurkeztea aginduzkoa denean.
- ii) Hondakinen ikuskapena edo udalaren kontrola oztopatzea edo eragozte.

### **87. artikulua. Arau hauste oso astunak**

- 1. Arau hauste oso astunak izango dira:
  - a) Auzo konposterako eremuak instalatzea udalaren baimenik eskuratu gabe, udalak ezarritako baldintzak urratuta edo honako ordenantza honetan araututako baldintzen aurka eginda.
  - b) Hondakinak erabiltzea udalaren edukiontzietan edo haietatik ateratzea.
  - c) Edukiontzia lapurtzea.
  - d) Baimendurik ez dauden edukiontzia jartzea bide publikoan hondakinak biltzeko.
  - e) Hondakinak kontrolik gabe uztea, isurtzea, biltzea edo ezabatzea eremu publiko edo pribatuetan, ekintza horrek pertsoneri edo ingurumenari kalte larririk eragiten dienean.
  - f) Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak baimendurik ez dagoen leku batean pilatzea edo isurtzea, ekintza horrek pertsoneri edo ingurumenari kalte larririk eragiten dienean.
  - g) Amiantodun hondakinak bertan behera uztea, pilatzea, biltzea, isurtzea edo ezabatzea, baimendutako instalazioetatik kanpo eta/edo baimendutako kudeatzailek gabe.
  - h) Edukiontzi eta/edo ibilgailuen altuera osagarriak erabiliz handitzea, betiere ekintza horrek pertsonentzako arrisku larririk badakar.
  - i) Udalak emandako ontziei eta konpostatzeko instalazioei kalte larriak eragitea.

j) Animalien gorpuak edo gorpu zatiak bertan behar uztea, lurperatzea edo erretzea baimendu gabeko lekuetan, betiere pertsonen osasuna edo ingurumena arrisku larrian jarri badira.

k) Udalaren eskumendeko hondakinak kudeatzea udalaren baimenik gabe.

l) Gurpilak garbitzeko edo erratzez garbitzeko ekipoak jartzeko eginbeharra ez betetzea, udalak hala eskatzen duenean.

m) Bi arau hauste astun edo gehiago egitea urtebetean.

o) Sukaldeko olio erabilia hondakin mota hori biltzeko ez diren edukiontzietan sartzea edo olio saneamenduko sarean isurtzea.

### **88. artikulua. Zehapenak**

1. Artikulu honen hurrengo ataletan xedatutakoa gorabehera eta, bidezkoa denean, erantzukizun penal edo zibila eskatzeari kalterik egin gabe, honako ordenantza honetan jasotako manuen aurkako arau hausteak apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 141. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik zehatu egingo dira.

a) Arau hauste oso astunak: 1.501,00 eurotik 3.000,00 eurorainoko isuna.

b) Arau hauste astunak: 751,00 eurotik 1.500,00 eurorainoko isuna.

c) Arau hauste arinak: 750,00 eurorainoko isuna.

2. Jarraian ageri diren epigrafeetan xedatutako arau hausteak uztailearen 28ko 22/2011 Legeak, Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoak, ezarritakoari jarraituz zehatuko dira:

a) Udalaren eskumendeko zeinahi hondakin kontrolik gabe uztea, isurtzea edo ezabatzea.

b) Dokumentazioa aurkezteko eginbeharra ez betetzea, bai eta hondakinak eta animalia azpiproduktuak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duen dokumentazioa ez gordetzea eta ez zaintzea, halakoak eskatzen direnean.

c) Udalaren zaintza, ikuskapena eta kontrola oztopatzea.

d) Hondakin arriskutsuak eta eraikuntzako nahiz eraispenerako beste hondakin batzuk nahastea edo lehenengoak eta etxeko beste hondakin batzuk nahastea.

e) Hondakinak udalaz kanpoko erakundeei ematea, ezinbestean udalaren esku jarri behar direnean, eta udalaren jarduna baino ez den zerbitzua eskaintzen duten erakundeek hondakinak onartzea.

3. Zehapenak aldi batera gertatuz gero, kalifikaziorik handienekoa aplikatuko da.

### **89. artikulua. Zehapenak mailakatzeko irizpideak**

Zehapenaren zenbatekoa zehazteko, zehapena sorrarazi duten inguruabarrak kontuan hartuko dira, besteak beste, arau haustearen izaera, eragindako kaltea, errepikatzea, intenzionalitatearen maila, jarduketaren bidez lortu den kostuen aurrezpena, bai eta aringarri edo astungarritzat jo daitezkeen inguruabar guztiak ere.

### **90. artikulua. Behin-behineko neurriak**

1. Indarrean dagoen legeria aplikatzeko xedez, behin-behineko neurri egokiak hartu ahalko dira ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko, kautelazko esku hartzea materialak kentzea eta beste.

2. Behin-behineko neurriak ez dira zehapentzat joko, araudi aplikagarrian xedatutakoak izango dira eta, nolahi ere den, saihestu nahi den kaltearen proportziozkoak izango dira. Behin-behineko neurriak honelakoak izan daitezke:

a) Zuzentze, segurtasun edo kontrol neurriak, kaltearen iraupena eragozteko.

- b) Tresnak, ekipoak edo ibilgailuak zigilatzea.
- c) Establezimendua aldi baterako zati batean edo behin betiko ixtea, edo obra geraraztea.
- d) Jarduera gauzatzeko baimena aldi baterako etetea edo obra gauzatzeko lizentzia aldi baterako etetea.

Azken xedapen bakarra

Honako ordenantza hau 15 egunean jarriko da indarrean, horren testu osoa ALHAOn behin betiko argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Durana, 2018ko abuztuaren 13a

*Alkatea*

*MARÍA BLANCA ANTÉPARA URIBE*